

INTIMITATEA

BILBOTIK Gasteizera nentorren, lineako autobusean. Nahiko berandu zen. Kanpoan ilun zegoen, eta autobusaren barnealdekoa ere nahiko giro iluna zen. Batzuk erdi lo zetozen, beste batzuk sakelako telefonoei begira, eta nire alboko gizona eta biok liburu bana irakurtzen geunden, gure gainean zeuden argitxo txikiak piztuta. Esan daiteke nahiko giro intimo edo goxoa zela autobusekoa. isiltasuna zen nagusi. Gidariak ez zuen musika jarri, ez zuen irratiko kirol saiorik sintonizatu.

Halako batean, gure atzealdean zegoen emakume batek telefonoa hartu eta lagun bati deitu zion. “¡Hola cariño!”. Bere lehen bi hitzen bolumenak asaldatu gintuen denok. Burua altxatu genuen liburuetatik, sakelako telefonoetatik... erdi lo zetozenek begiak ireki zituzten. Liburutegi batean norbait barre algaraka hasi balitz bezala, halako efektua izan zuten emakumearen lehen hitz gogotsu haiek. “Qué tal cariño, nada, que voy en el bus, y he pensado voy a llamar a Esme, a ver qué me cuenta...”. Elkarrizketa autopistako Aretako sarreran hasi zen gutxi gorabehera. Autopistako Altubeko irteeran oraindik hizketan zegoen, eta ez zuen elkarrizketa eten autobusa Gasteizeko lehen semaforoan gelditu zen arte. “Nada, Esme, que ya llego, cuídate guapa, nos vemos mañana”. Ordurako bagenekien denek arropa denda batean egiten zuela lan, bere nagusiarekin arazoak zituela, poltsa bat erosi berri zuela Bilbon eta Esme bere lankidea zela. Nik, noski, ezin izan nuen eskuetan neraman liburuaren paragrafo bakarra irakurri eta ingurura begiratuta argi antzeman nuen gainontzekoen haserre keinua. Hala ere, elkarrizketa bukatu ondoren, ez zion inork ere ezer esan emakumeari.

Hurrengo egunean, Trumpen irudiak ikusi nituen telebistan. Haren ahotsak eraso egin zidan, eta ez dakit zergatik aurreko egunean autobusean telefonoz aritu zen emakume hura gogoratu nuen. Hura bezala, EEBBetako presidentea ere nire intimitatean sartuta neukan. Barne barneraino. Eta haren ahotsa entzun bitartean ezin nuen ezer egin. Ez irakurri, ez pentsatu, ezta lasai egon ere. Zain geratu nintzen pantailari begira.

Karmele Jaio
2017/01/27 DEIA

Aukera ezazu hitz edo forma egokia.

1) A) alaia B) iluna C) zaratatsua	2) A) argitxo B) bozgorailu C) ilargi	3) A) Isiltasuna B) Zarata C) Jendearen zurrunga
4) A) asaldatu gintuen B) poztu gintuen C) alaitu gintuen	5) A) leihoak B) egunkariak C) begiak	6) A) lotan B) isilik C) hizketan
7) A) noski B) eskerrak C) zorionez	8) A) lo B) haserre C) tristura	9) A) isiltzeko B) jarraitzeko C) ezer
10) A) nire intimitatean B) nire sakelako telefonoan C) bizimoduan		

